

Patxi Larretxea Lazkano

*Arantza,
Nafarroa
(1959)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ARN-030

- **Proiektua:** Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990

- **Elkarrizketatzailea(k):** Larretxea Agirre, Ainhoa
- **Data:** 2023-03-15
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Larretxea Agirre, Ainhoa

Pasarteak

1. Patxiren aurkezpena

- **Erref:** ARN-030/001
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Patxi Arantzan sortua da, baina Beran bizi da. 63 urte ditu eta Lesakako fabrikan egiten du lan.

2. Trantsizio garaia eta euskararen aldeko mugimendua

- **Erref:** ARN-030/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:02:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Trantsizio garaian, herri mugimenduak hasi zirelarik, Patxik 17 bat urte zituen. 1977An hasi zen fabrikan, eta bere lana izateaz aparte, aunitz ikasi zuen bertan langile-borrokaren eskutik. Geroxeago, euskararen aldeko mugimendua hasi zen; garai hartako testuinguruaz solastatzen da Patxi. Mugimendu horren baitan, euskalduntze eta alfabetatzeko beharra sortu zen; Patxi Bortzirietako euskaltegian aritu zen.

3. Bizimodua euskaltegiaren bueltan

- **Erref:** ARN-030/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:02:23. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskaltegiaren proiektuaren inguruan, lagun kuadrilla bat elkartu zen (zeintzuk ziren aipatzen du Patxik), eta Mikel Legarra izan zen bertako motor nagusia. AEKren barrenean sartu eta gau-eskolak sortu zituzten Bortzirietako herri bakoitzean. Euskaltegiaren inguruan bizi ziren: asteburuetan txangoak egiten zituzten, mendi ibilaldiak, udako ikastaroak...

4. Mugimendu handia euskaltegiaren inguruan

- **Erref:** ARN-030/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Nafarroako Ley del Vascuence delakoa atera zutelarik, horren kontrako manifestazioetara joaten ziren, aunitz mugitzen ziren. Harreman handia egin zuten Iruñeko eta Gasteizko euskaltegiekin; udako ikastaroetara batez ere hango ikasle eta irakasleak etortzen ziren. Barnetegietara joaten ziren ikasleen motibazioa euskara ikastea zen; egun, berriz, euskara-titulua eskuratu nahi dute. Giro ona izaten zuten barnetegietan, egunez klaseetara joaten ziren eta gauez poteatzera ateratzen ziren. Korrikaren antolaketan ere aritzen ziren euskaltegiak.

5. Hasierako gau-eskolez

- **Erref:** ARN-030/006
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Gau-eskolak non ematen zituzten aipatzen du Patxik. Udalarari eskatzen zioten lokal bat eta hantxe ematen zituzten klaseak, garai hartan euskaltegiak ez zuen egoitza propiorik. Patxi irakasle aritu zen Arantzan eta EGAKo talde batean.

6. Klaseen prestaketa

- **Erref:** ARN-030/008
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:11:04. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Patxi bere kontu alfabetatu zen, baita Lazkaon AEK-k antolatutako ikastaro batzuen bidez ere. Klaseen prestaketarako, Bortzirietako irakasleak bildu eta elkarrekin prestatzen zituzten. Ordurako bazuten euskara irakasteko materiala, errate baterako, Arturo Campion euskaltegiak prestatutakoa.

7. Matxinbeltzenea abian paratzea

- **Erref:** ARN-030/009

- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:11:44. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Euskaltegiak egoitza propiorik ez zuenez, barnetegiaren prestaketa nahiko konplexua izaten zen. Hala, egoitza bat izateko beharretik, Matxinbeltzenea sortu zuten; Mikel Legarra izan zen bultzatzaile nagusia. Matxinbeltzenea deskribatzen du Patxik, eta finantzatzeko modua zein izan zen aipatu: IKA, aportazio popularra, auzolana...

8. AEKren haustura, IKAren sorrera

- **Erref:** ARN-030/011
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:17:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Bortzirietako euskaltegia hasieran AEK zen, baina AEK barrenean haustura eman zelarik, IKA izatera pasatu zen. AEKren barrenean bi ildo ziren: batetik, ezker abertzalearekin lotura izan beharra zuela pentsatzen zutenak eta, bertetik, independentzia osoa behar zela pentsatzen zutenak. Hala, AEK zatitu eta IKA sortu zen.

9. Matxinbeltzenea sortu eta gero, klaseak non

- **Erref:** ARN-030/012
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:17:09. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Matxinbeltzenea sortuta ere, Bortzirietako herri bakoitzean antolatzen ziren klaseak. Halere, Arantza eta Igantzin ordurako ez zen talderik, eta Lesaka edo Berarat joaten ziren.

10. Euskara mankomunitatearen sorrera

- **Erref:** ARN-030/013
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:18:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Garai horretan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea sortu zen, euskarari zegozkion gaiak kudeatzeko. Mankomunitatearen sorreran ere euskaltegikoek parte hartu zuten.

11. Ikasle aunitz euskaltegian

- **Erref:** ARN-030/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Ikasle aunitz izaten ziren euskaltegian, eta giro ona izaten zuten. Mugimendu handia egoten zen; astebururo ekintzaren bat izaten zuten.

12. Lesakako fabrikan, euskara ikastea

- **Erref:** ARN-030/015
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Lesakako fabrikan, lan-hitzarmen baten bidez bertako langileei euskara ikasteko aukera ematen zitzaien: euskara klaseak antolatzen ziren fabrikan bertan, edo matrikula ordaintzen zitzaien langileei.

13. Euskaltegiko langileak liberatuak

- **Erref:** ARN-030/016
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Matxinbeltzenea sortu zenerako, bertako irakasle eta langile guziak liberatuak ziren, jardunaldi osoz aritzen ziren lanean.

14. Matxinbeltzenea sortzen indar-hustu

- **Erref:** ARN-030/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Lan handia egin zuten Matxinbeltzenea sortzen, eta nekagarria izan zen. Horren sorreraren ondotik, jende berria sartu zen proiektuan eta Patxik lekukoa utzi zien.

15. Bertsolaritzarekiko zaletasuna

- **Erref:** ARN-030/018
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:21:49. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Herri hagitz bertsozalea izan da beti Arantza; bertsolariak eramaten zituzten edozein besta ospatzen zelarik. Madariaga anaia bertsolariak ere Arantzakoak ziren. Patxiri hortik heldu zaio bertsolaritzarekiko zaletasuna.

16. Paulo Iantzi sariketa eta Nafarroako txapelketa

- **Erref:** ARN-030/020
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Lesakan, Paulo Iantzi sariketa antolatzen hasi ziren Antton Erkizia eta Kontxi Erro, Nafarroa eta Iparraldeko bertsolariekin. Geroago, sariketa hori Nafarroako txapelketa bihurtuko zen. 1998. urtean, Manolo Arozenak Nafarroako txapelketan parte hartu eta txapeldun-orde gelditu zen. Patxi Ttipi Ttapan ere aritzen zen, eta txapelketari buruzko monografikoa argitaratu zuten aldizkarian. Horren harira, Nafarroako Bertsolarien Elkartetik Patxiri deitu zioten Nafarroako txapelketa antolatzen laguntzeko. Hala, gai-jartzaile eta epaile aritu zen Patxi. Euskal Herriko txapelketan ere aritu izan da.

17. Bertsolaritzaren boom-a

- **Erref:** ARN-030/021
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1993. urte inguruan, bertsolaritzak boom handia izan zuen: saio aunitz antolatzen ziren eta jende aunitz hurbiltzen zen horietara.

18. Nafarroako txapelketatik Xilabara

- **Erref:** ARN-030/022
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:26:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Nafarroako txapelketan, lehen, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko bertsolariek hartzen zuten parte. Iparraldean ez zuen halako indarrik bertsolaritzak; Nafarroan, aldiz, indartsu zegoen. Geroago, Iparralde mailako txapelketa antolatzen hasi ziren, Xilaba.

19. 90eko hamarkadan, euskararen aldeko mugimendu indartsua

- **Erref:** ARN-030/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:26:34. **Bukatu:** 00:28:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

90eko hamarkadarako, lan pila bat egin zen: euskara batzordeak eta euskara teknikaria baziren, bertso saioak antolatzen ziren, bertso eskola martxan zen, ikastola, gau eskolak... Euskararen inguruko mugimendu indartsua zegoen Bortzirietan.

20. 90eko hamarkadaren akaberako euskararen egoera eta egungoa

- **Erref:** ARN-030/024
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:28:13. **Bukatu:** 00:30:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

90eko hamarkada akaberarako, euskarak presentzia handiagoa zuen Beran. Patxik uste zuen lortutako guziak herria euskalduntzeko balioko zuela, baina, egun, bertze debate eta arazo batzuk sortu dira euskararen inguruan. Erabilerak beheiti egin duela aipatzen du, beraz, espektatibak ez direla bete.

21. Ttipi Ttapan kolaboratzaile

- **Erref:** ARN-030/025
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

1990. urtetik aitzinerat, Patxi Ttipi Ttapan kolaboratzen hasi zen, baina ez zen aldizkariaren sorreran aritu. Ttipi Ttaparen garapena aipatzen du: hiru hilabetekaria izatetik, hamabortzkaria izatera pasa zen aldizkaria. Prozesu horretan guzian, Joxema Irigoienek protagonismo handia izan zuen. Patxik iritzi-testuen bidez kolaboratzen zuen.

22. Ttipi Ttaparen profesionalizazioa

- **Erref:** ARN-030/026
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

Ttipi Ttapa profesionalizatzeko prozesuan, aldizkaria hamabortzkari bihurtu zen, eta iragarkiak sartzen hasi ziren. Geroxeago, Ttipi Ttapa telebista paratu zen martxan, baina arazo ekonomikoak zirela medio, bertan behera utzi zuten.

23. Ttipi Ttaparen garrantzia

- **Erref:** ARN-030/027
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:

Gaur egun, Patxiren ustez, Ttipi Ttapak lotura bat ematen dio eskualdeari. Aldizkariak eduki egokia duela aipatzen du.

24. Euskaltegia baino lehenagoko euskararen aldeko proiektuak

- **Erref:** ARN-030/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Patxi euskaltegia sartu zelarik, aitzinetik baziren martxan euskararen alde lan egiten zuten zenbait proiektu: ikastola, gau eskolak... Halere, euskaltegiaren sorreran modu nahiko autonomoan hasi zirela aipatzen du Patxik, Iruñeko AEKrekin harremanetan eta beraiek eredutzat hartuz.

25. Euskara batzordeetan, denak elkarrekin

- **Erref:** ARN-030/029
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:35:37. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Herrietako euskara batzordeetan elkartzen ziren euskararen alde lan egiten zuten proiektu ezberdinak, errate baterako, ikastolakoak, bertso eskolakoak eta euskaltegikoak.

26. Euskaltegia finantzatzea

- **Erref:** ARN-030/030
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:36:31. **Bukatu:** 00:37:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Euskaltegia finantzatzeko, ostatua paratzen zuten herriko bestetan. Nafarroako Gobernuarekin ere beti bueltaka aritzen ziren dirulaguntza handitzeko. Euskaltegian lan egiteak beti izan du militantzia zati bat.

27. Garaiko oroitzapen onak

- **Erref:** ARN-030/032
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:40:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Garai hartan egindakoaz oroitzapen onak ditu Patxik. Lan aunitz egin zuten, baina harremanak egiteko modua ere bazen. Egindako lanak balio izan duela aipatzen du; euskaltegiari duintasuna eman zioten, eta bertso eskolarekin gazte bertsolari aunitz sortu dira.

28. Egungo egoerarekin kezkatua

- **Erref:** ARN-030/033
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:40:42. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Garai hartan, eskualdea eta Euskal Herria arrunt euskaldunduko zirela pentsatzen zuten. Baina egun, ezagutza handia izan arren, erabileran zuloa dagoela erraten du Patxik, euskararekiko kontzientzia neurri batean galdu dela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com